

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 25 BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA
Programa: 232023
232253 KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 25 IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA
Programa: 232023
232253 CONVIVENCIA INTERCULTURAL

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

2023ko ekitaldian garatu beharreko aurrekontu programa horren helburuak honako hauek ziren: lurraldean dagoen aniztasuna kudeatzea kulturen arteko bizikidetzaren ikuspegitik; migrazio errealitatea ikertzea eta ikusaraztea; zurrumurru, aurreiritzi eta estereotipoen aurkako sentsibilizazioa eta borroka; sektore horretan lan egiten duten erakundeak babestea eta indartzea; elkartzeko eta harremanetarako guneak sustatzea; eta, azken batean, kulturen arteko bizikidetzaren sustatzea, genero ikuspegia zeharka txertatuz giza eskubideen ikuspegitik.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

2023an zehar, ondoko hauek izan dira bizikidetzaren eta kulturartekotasunaren gaitan egindako ekintzak:

1.- Lurraldean ezartzen jarraitzea Dibertsitatea Kudeatzeko 2021-2024 Estrategia kulturen arteko bizikidetzaren ikuspegitik:

Estrategia hori ezartzeko, zeina 2021ean aurkeztu eta martxan jarri baitzen, Diputatu Nagusiaren ekainaren 7ko 117/2023 Foru Dekretuaren bidez ezarri zen laguntza teknikoko zerbitzua kontratatze beharra, 2023ko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoan kulturarteko esku hartzea koordinatzeko eta dinamizatzeko idazkaritza teknikoak garatzeko.

Kontratazio hori geroago esleitu zen, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko diputatuaren urriaren 5eko 29/2023 Foru Aginduaren bidez. Bi lote bereizi ziren, eta, beraz, bi izan ziren (Zehar eta Bitartean Jolasean) bizikidetzaren arloko analisi diagnostikoak eta mapaketak eguneratzeaz eta egiteaz arduratu ziren erakundeak; kulturen arteko gogoeta, trukea, prestakuntza, sentsibilizazioa eta esku hartzea bultzatzeko eta finkatzeko guneak sortu

I. MEMORIA

El objetivo de este Programa Presupuestario a desarrollar a lo largo del ejercicio 2023 comprendía la gestión de la diversidad presente en el territorio en clave de convivencia intercultural, la investigación y visibilización de la realidad migratoria, la sensibilización y lucha contra los rumores, prejuicios y estereotipos, el apoyo y fortalecimiento de las entidades que trabajan en este sector, el fomento de espacios de encuentro y relación, y en definitiva, la promoción de la convivencia intercultural, incorporando transversalmente la perspectiva de género con enfoque de derechos humanos.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Durante 2023 las actuaciones realizadas en materia de convivencia e interculturalidad han sido las siguientes:

1.- Continuar con la implementación en el territorio la Estrategia para la Gestión de la Diversidad en clave de convivencia intercultural 2021-2024:

Para la implementación de esta Estrategia, ya presentada e iniciada en 2021, se estableció mediante Decreto Foral 117/2023, de 7 de junio, del Diputado General se estableció la necesidad de contratar el servicio de asistencia técnica para el desarrollo de secretarías técnicas de coordinación y dinamización de la intervención intercultural en el Territorio Histórico de Álava en el ejercicio 2023.

Esta contratación se adjudicó posteriormente, mediante Orden Foral 29/2023, de 5 de octubre, de la Diputada de Igualdad, Euskera y Gobernanza, distinguiéndose dos lotes y siendo por tanto dos (Zehar y Entretanto Entretente) las entidades que se han encargado de la actualización y elaboración de análisis diagnósticos y mapeos en materia de convivencia; en la generación y consolidación de espacios de reflexión, intercambio, formación,

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 25 BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA

Programa: 232023
232253 KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

eta finkatu zituztenak; eta eskualde estrategiak bultzatu, programatu eta koordinatzeaz arduratu zirenak, lurralde eragilei tokiko programak eta ekintzak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen lagunduz. Zeregin horiek laguntza tekniko horren xede dira, Arabako Lautadako, Gorbeialdeko, Aiarako, Arabako Mendialdeko, Añanako eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrilletan hedatzea lortzeko.

2.- EHUrekin ekintza ildo bati eustea, immigrazioaren fenomenoaren ikerketarekin eta ikusgarritasunarekin eta kulturartekotasunaren euskal politika publikoen hedapenarekin lotuta:

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko diputatuaren urriaren 27ko 34/2023 Foru Aginduaren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateari zuzeneko dirulaguntza bat ematea onetsi zen, Arabako Lurralde Historikoan migrazio fenomenoaren ikertzeko eta ikusarazteko eta politika publikoak kulturarteko ikuspegitik aztertzeko.

Dirulaguntza horren esparruan, honako zeregin hauek egin dira: kulturarteko datuak eta diskurtsoak aztertu eta kontrastatu dira Arabako foru egiturekin eta kuadrillekin; kultur aniztasunari eta bizikidetzari buruzko komunikazioko eta sentsibilizazioko kanalak bultzatu dira autonomia erkidegoan, kanal horiek Arabako lurraldera moldatuz; eta, azkenik, "Dibertsitatea Kudeatzeko 2021-2024 Estrategia kulturen arteko bizikidetzaren ikuspegitik" estrategian Arabako lurralde osorako jasotzen dena gainbegiratu eta akademikoki kontrastatu da. Hori hertsiki lotuta dago UPV-Ikuspegitik immigrazioko, kulturartekotasuneko eta aniztasunaren kudeaketako politikak estimulatzeari koherentzia emateko egiten den lanarekin, kasu honetan foru eta toki esparruan.

3.- Zurrumurruen aurkako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Estrategia bultzatzen eta finkatzen jarraitzea lurraldean, zurrumurruen aurkako eragileen landa sarean dinamizazioarekin eta sentsibilizazio ekintzekin, genero ikuspegiarekin eta giza eskubideen ikuspegiarekin.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 25 IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA

Programa: 232023
232253 CONVIVENCIA INTERCULTURAL

sensibilización e intervención intercultural; y en el impulso, programación y coordinación de estrategias comarcales, a través del acompañamiento y soporte a las y los diferentes agentes territoriales en el diseño, ejecución y evaluación de programas y acciones locales; tareas incluidas en el objeto de esta asistencia técnica dirigidas a la consecución de dicho despliegue en las Cuadrillas de Llanada Alavesa, Gorbeialdea, Ayala, Montaña Alavesa, Añana y Laguardia-Rioja Alavesa.

2.- Mantener una línea de acción con la UPV vinculada a la investigación y la visibilización del fenómeno de la inmigración y el despliegue de políticas públicas vascas de interculturalidad:

Mediante Orden Foral 34/2023, de 27 de octubre, de la Diputada de Igualdad, Euskera y Gobernanza, se aprobó la concesión de una subvención directa a la Universidad del País Vasco para la investigación y visibilización del fenómeno migratorio y estudio de políticas públicas con perspectiva intercultural en el Territorio Histórico de Álava.

Las tareas llevadas a cabo en el marco de esta subvención han sido el análisis y contraste de datos y discursos en materia intercultural con las diferentes estructuras forales y cuadrillas alavesas; el impulso de los canales de comunicación y sensibilización en diversidad cultural y convivencia a nivel autonómico, aterrizando dichos canales en el territorio alavés; y por último, la supervisión y contraste académico de todo aquello que se recoge en la "Estrategia para la gestión de la Diversidad: por una convivencia intercultural 2021-2024" en todo el territorio alavés, y que está estrechamente relacionado con el trabajo que desde UPV-Ikuspegi se genera para dar coherencia, en este caso al marco foral y local, en el estímulo de políticas de inmigración, interculturalidad y gestión de la diversidad.

3.- Proseguir con el impulso y consolidación de la Estrategia Antirrumor y por la Convivencia Intercultural en el territorio, con la dinamización de las redes rurales de agentes antirrumor y las acciones de sensibilización, con perspectiva de género y enfoque de derechos humanos.

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 25 BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA

Programa: 232023
232253 KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

2016an Arabako Lurralde Historikoan Zurrumurruen Aurkako Estrategia abian jarri ondoren, 2023an estrategia hori sendotzen jarraitu zen Aiarako, Arabako Mendialdeko, Añanako, Arabako Lautadako eta Gorbeialdeko kuadrilletan laguntza teknikoa ematearen bidez. Berrikuntza gisa, Guardia-Arabako Errioxako kuadrillan bultzatu zen (diputatu nagusiaren martxoaren 29ko 75/2023 Foru Dekretuaren bidez ezarri zen eta Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko diputatuaren abuztuaren 3ko 8/2023 Foru Aginduaren bidez ebatzi).

Esparru horretan, zurrumurruen aurkako eragileen sareak dinamizatu eta lagundu dira, eta bizikidetzak ikusarazteko, sentsibilizatzeko eta sustatzeko tokiko hainbat ekimen lagundu eta gauzatu dira (prestakuntzak, tailerrak, bideoak, kaleko ekintzak, etab.). Urteari amaiera emateko, azaroan “Bizilagunak” kulturarteko bazkariak egin ziren. 37 nazionalitateko ia 700 pertsonak parte hartu zuten Arabako 15 udalerritan.

4.- Arabako Foru Aldundiak ZAS! (Zurrumurruen Aurkako Sarea) sareari atxikita jarraitzea eta horrekin lankidetzan jarraitzea, truke eta ekintza autonomikoko guneetan parte hartuz eta horietan inplikatzuz:

Arabako Foru Aldundia ZAS! Elkartea-ZAS! Sarearen kide egin zen 2021ean. Ondoren, diputatu nagusiaren ekainaren 26ko 147/2023 Foru Dekretuaren bidez, 2023ko ekitaldiko urteko kuota esleitu eta ordaindu zitzaion erakunde horri.

Lankidetzak horren esparruan, sareak II. ZAS! Biltzarra antolatu eta gauzatu zuen, “Migrazioa: zurrumurruek, estereotipoak eta sare komunitarioak” izenekoak, baita hezkuntzari, euskarari, etxeko lanei eta abarri buruzko lurralde solasaldiak ere; hiruhileroko informazio buletinak eta hileroko newsletterrak egin eta zabaldu zituen; “Komunikazio trebetasunei eta gaitasunei buruzko eskuliburua” egitea sustatu zuen; eta sarea eta aliantzak indartzeko osoko bilerak eta bilera sektorialak planifikatu eta antolatu zituen.

5.- Irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeek ekimenak babestea, ALHn edota Trebiñuko

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 25 IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA

Programa: 232023
232253 CONVIVENCIA INTERCULTURAL

Tras la puesta en marcha en 2016 de la Estrategia Antirrumor en el Territorio Histórico de Álava, en el año 2023 se prosiguió con la consolidación de la misma a través de una asistencia técnica en las Cuadrillas de Ayala, Montaña Alavesa, Añana, Llanada Alavesa y Gorbeialdea, y como novedad, el impulso en la Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa (establecida según Decreto Foral del Diputado General 75/2023, de 29 de marzo, y resuelta según Orden Foral 8/2023, de 3 de agosto, de la Diputada de Igualdad, Euskera y Gobernanza).

En este marco, se han dinamizado y acompañado a las redes de agentes antirrumores y apoyado y ejecutado diferentes iniciativas locales de visibilización, sensibilización y promoción de la convivencia (formaciones, talleres, videos, acciones de calle, etc.), culminando el año con las comidas interculturales del “Bizilagunak” en noviembre, en las que participaron casi 700 personas de 37 nacionalidades distintas en 15 municipios de Álava.

4.- Mantener la adhesión y colaboración de la Diputación Foral de Álava con la Red ZAS! (Zurrumurruen Aurkako Sarea – Red Antirrumor), participando e implicándose en espacios de intercambio y acción autonómica:

Tras la adhesión formal de la Diputación Foral de Álava como entidad socia de la Asociación ZAS!-Red ZAS! en 2021, se llevó a cabo mediante Decreto Foral del Diputado General 147/2023, de 26 de junio, la consignación y el abono a favor de esta entidad de la cuota anual para el ejercicio de 2023.

En el marco de esta colaboración, la Red organizó y llevó a cabo el II. Congreso ZAS! sobre “Migración: rumores, estereotipos y redes comunitarias” y diferentes conversatorios territoriales sobre educación, euskera, trabajo doméstico...; elaboró y difundió los boletines informativos trimestrales y las newsletter mensuales; impulsó la realización de un “Manual acerca de destrezas y habilidades de comunicación”; y planificó y organizó reuniones plenarias y sectoriales para el fortalecimiento de la red y alianzas.

5.- Apoyar iniciativas de asociaciones y entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de acciones

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 25 BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA
Programa: 232023
232253 KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

enklabean kulturarteko sentsibilizazio eta bizikidetzak garatzeko, genero ikuspegia zeharka txertatuz:

Alde batetik, Diputatu Nagusiaren abenduaren 28ko 472/2022 Foru Dekretuan araututako dirulaguntzen deialdiaren bidez (dirulaguntza horiek irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeei zuzenduta daude, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura arteko bizikidetzak eta sentsibilizazioa sustatzera bideratutako proiektuak edota jarduerak gara ditzaten), guztira 17 proiektu lagundu ziren aurkeztutako 22 eskaeretatik. 107.266,39 euro eman ziren guztira.

Gehienak kulturartekotasunaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan ikusarazteko eta sentsibilizatzeko proiektu eta prozesu estrategikoak izan dira, immigrazioari lotutako aurreiritziei, zurrumurruei eta estereotipoei aurre egiteko, bizikidetzak hobetzeko eta elkarriketarako, topaketarako eta harremanetarako guneak sustatzeko.

Bestalde, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko diputatuaren urriaren 31ko 36/2023 Foru Aginduaren bidez, ADSIS Fundazioari zuzendutako dirulaguntza bat ematea eta “Gazteak landa eremua aniztasunez aberasten” proiekturako lankidetzak hitzarmen bat sinatzea onetsi zen, 14 eta 16 urte bitarteko gazteekin hezkuntza esparruan guneak sortzeko, kulturartekotasuna partekatzeko eta horri buruz elementu aberasgarriak gisa hitz egiteko. 20.000,00 euro eman ziren guztira.

6.- Arabako lurralde osoan kulturartekotasunaren arloko prebentzio, prestakuntza, sentsibilizazio eta bizikidetzak ekintza propioak gauzatzeko:

Lehenik eta behin, 2023an, “Dibertsitatea Kudeatzeko 2021-2024 Estrategia kulturen arteko bizikidetzaren ikuspegitik” estrategiaren esparruan egindako bi gida sozializatzea eta hedatzea bultzatu eta indartu da: “Arabian bizi diren emakume magrebtarrei buruzko estereotipoak lantzeko eta zurrumurruen aurkako ekintza genero ikuspegia txertatzeko oinarritzeko gida” eta “Landa inguruneak kultura arteko bizikidetzari buruzko gida eta

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 25 IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA
Programa: 232023
232253 CONVIVENCIA INTERCULTURAL

de sensibilización y convivencia intercultural en el Territorio Histórico de Álava y/o Enclave de Treviño, incorporando transversalmente la perspectiva de género:

Por un lado, a través de la convocatoria de subvenciones regulada en el Decreto Foral del Diputado General 472/2022, de 28 de diciembre, dirigidas a asociaciones y entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de proyectos y/o actividades destinadas a la sensibilización y a la convivencia intercultural en el Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño, se subvencionaron un total de 17 proyectos (de las 22 solicitudes presentadas), por un importe total de 107.266,39 euros.

En su mayoría han sido proyectos y procesos estratégicos de visibilización y sensibilización en el ámbito de la interculturalidad y la gestión de la diversidad, destinados a combatir prejuicios, rumores y estereotipos ligados a la inmigración y para la mejora de la convivencia, la promoción de espacios de diálogo, encuentro y relación.

Por otro, mediante Orden Foral 36/2023, de 31 de octubre, de la Diputada de Igualdad, Euskera y Gobernanza, se aprobó la concesión de una subvención directa a la Fundación ADSIS y aprobar la suscripción de un convenio de colaboración para el proyecto “Gazteak landa eremua aniztasunez aberasten”, para la creación de espacios en el ámbito educativo con jóvenes entre 14 y 16 años donde compartir y dialogar en torno a la interculturalidad como elemento enriquecedor, por una cuantía de 20.000,00 euros.

6.- Llevar a cabo acciones propias de prevención, formación, sensibilización y convivencia en materia de interculturalidad en el conjunto del territorio alavés:

En primer lugar, señalar que en 2023 se ha incidido y reforzado la socialización y difusión de dos guías elaboradas en el marco de la “Estrategia para la Gestión de la Diversidad: por una convivencia intercultural en Álava 2021-2024”: la “Guía básica para el abordaje de estereotipos sobre mujeres magrebíes vecinas de Álava y para la incorporación de la perspectiva de género en la acción

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 25 BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA

Programa: 232023
232253 KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

aniztasun soziokulturala herrien oraindirako eta etorkizunerako faktore positibo nola bihurtu”.

Gida horiek honako prozesu hauen emaitza izan ziren: elkar ezagutzea eta harremanetarako guneak sustatzea, immigrazioari lotutako aurreiritzi eta estereotipoei heltzea, eta, azken batean, Arabako herritar guztien bizikidetzaren eta ongizatearen hobetzea.

Kanpezuko eta Artziniegako udalerrietako emakume migratuen eta autoktonoen prozesua nabarmendu behar da, Bidaya emakume musulmanen elkarteko Hajar Samadiren dinamizazioarekin. Prozesu horren bidez, jatorri magrebtarreko emakumeekiko esku hartzea eta bi udalerrietako tokiko emakumeekin partekatzen duten gune komunak sendotzeaz gain, topaketarako eta sareak sortzeko tokiko jarduerak eta ekimenak ere sustatu dira, helmugako udalerrietan kulturarteko bizikidetzaren hobetzeko genero ikuspegiak, eta udalerritar horietako emakumeen ikusgarritasuna eta parte hartzea sustatzeko.

Azkenik, aipatzekoa da Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzarekin egindako lana eta izandako lankidetzaren, zuzendaritzaren horrek egindako “Gurasoentzako gida: Eskolan, kalean eta etxean, euskara lagun” izeneko gidaren kulturarteko ikuspegia berrikusteko eta txertatzeko.

7.- Kulturarteko bizikidetzari lotutako ekintzak eta prozesuak LAIA-n (emakumeen berdintasunerako eta ahaldunderako Arabako Lurralde Sarea) edota parte hartzeko beste plataforma batzuetan zeharka txertatzea:

Horri dagokionez, esan beharra dago arloko dirulaguntzen bi deialdietan honako testu honi eusten zaiola aurreko ekitaldietan bezalaxe, ekintza larri hori ikusarazi eta berari buruz informatzeko:

“Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak interesgarritzat jotzen dituen eta publiko orokorrari irekita dauden proiektuak diruz lagunduak LAIA - Arabako Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolaren

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 25 IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA

Programa: 232023
232253 CONVIVENCIA INTERCULTURAL

antirrumores” y la “Guía sobre convivencia intercultural en el medio rural y cómo convertir la diversidad sociocultural en un factor positivo para el presente y futuro de los pueblos”.

Estas guías fueron resultado de procesos centrados en el fomento de conocimiento mutuo y espacios de relación, en el abordaje de prejuicios y estereotipos ligados a la inmigración y, en definitiva, en la mejora de la convivencia y el bienestar de toda la ciudadanía alavesa.

Cabe destacar aquí el proceso de mujeres tanto migradas como autóctonas en los municipios de Campezo y Artziniega, con la dinamización de Hajar Samadi de la Asociación de mujeres musulmanas Bidaya: mediante el cual, además de consolidarse la intervención con mujeres de origen/ascendencia magrebí y su espacio común con mujeres locales de ambos municipios, también se han impulsado diferentes actividades e iniciativas locales de encuentro y generación de redes para lograr la mejora de la convivencia intercultural en los municipios de destino con enfoque de género, y la visibilidad y participación de las mujeres de estos municipios.

Por último, señalar el trabajo y la colaboración realizada con la Dirección de Euskera de esta Diputación, para la revisión e inclusión de la perspectiva intercultural en la guía lanzada por esta dirección de nombre “Guía para padres y madres: crecer con el euskera, en la escuela, en la calle y en la familia”.

7.- Incluir transversalmente acciones y procesos ligados a la convivencia intercultural en LAIA – Red territorial de Álava para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres y/u otras plataformas de participación:

A este respecto, señalar que la convocatoria de subvenciones del área se mantiene como en ejercicios anteriores y a fin de visibilizar e informar sobre esta línea de acción el siguiente texto:

“Los proyectos subvencionados abiertos al público en general que la Dirección de Igualdad y Derechos Humanos considere de interés, formarán parte de la programación anual de LAIA – Escuela para la Igualdad y el Empoderamiento de las mujeres en

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 25 BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA

Programa: 232023
232253 KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

eta/edo Arabako Foru Aldundiaren beste partaidetza plataforma batzuen (Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantza, etab.) urteko programazioaren parte izango dira”.

Horrez gain, kulturartekotasun eta berdintasun atalen arteko lan komuneko ildoari eutsi zaio LAIAtik eta Zurrumurruen aurkako Estrategiatik, Arabako Mendialdeko eta Aiarako kuadrillean estereotipo, aurreiritzi eta emakumeekin zerikusia duen prozesuaren jarraipena eginez.

Bidenabar, LAIAren programazioan bertan, halaber, kulturartekotasunaren eta generoaren gaiak landu dira, eta gai horiei buruzko hainbat tailer eta saio jaso dira.

8.- Erakundeen eta hirugarren sektorearen elkartrukerako eta koordinaziorako foro eta egituretan aktiboki parte hartzea.

Kulturartekotasunaren arloko teknikariek parte hartu dute Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren barruan parte hartze, sentsibilizazio eta kulturako lan batzordeak deitutako bileretan.

Gainera, ZAS! Sarearen osoko bilkuretan parte hartu dugu.

EAEko Immigrazioko eta Kulturartekotasuneko Teknikarien Sarearen topaketetan ere parte hartu dugu: Eusko Jaurlaritzak zuzendutako eta bultzatutako sarea da, Euskadiko immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloko beste teknikari batzuekin programak eta ekintzak trukatzeko eta proposatzeko eta prestakuntza jasotzeko.

Oro har, ondo lortu da proposatutako helburuen zati bat betetzea, memoria honetan zehar azaldu den bezala.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 25 IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA

Programa: 232023
232253 CONVIVENCIA INTERCULTURAL

Álava y/o de otras plataformas de participación de la Diputación Foral de Álava (Alianza Alavesa por el Desarrollo Sostenible, etc.).”

Además, se ha mantenido la línea de trabajo común entre las áreas de igualdad e interculturalidad, desde LAIA y la Estrategia Antirrumor, con la continuidad del proceso relacionado con estereotipos, prejuicios y mujeres en las Cuadrillas de Montaña Alavesa y Ayala.

Igualmente, desde la misma programación de LAIA se ha trabajado la cuestión de la interculturalidad y el género, incluyéndose en la misma diferentes talleres y sesiones con esta temática.

8.- Participar activamente en foros y estructuras de intercambio y coordinación institucionales y del tercer sector.

El personal técnico del área de interculturalidad ha participado en las reuniones convocadas desde la Comisión de trabajo de participación, sensibilización y cultura dentro del Foro Vasco de Migración y Asilo.

Además, se ha tomado parte en las reuniones plenarias de la Red ZAS!.

También se ha participado en los encuentros de la Red de Personal Técnico de Inmigración e Interculturalidad de la CAV: red liderada e impulsada desde Gobierno Vasco para la formación y el intercambio y propuesta de programas y acciones con otras técnicas y técnicos del ámbito de la inmigración y la interculturalidad de Euskadi.

En conjunto, se ha logrado de forma satisfactoria el cumplimiento de parte de los objetivos propuestos tal como se ha ido describiendo a lo largo de esta memoria.